

Ipar Irlandako gatazka 1921-1998

Iker Frias Iturria

EHUko historia ikaslea

Sarrera

Lan honetan, azken mende honetako Ipar Irlandako gatazkaren ezaugarri nagusiak azaltzen saiatu naiz. Lana irlandar errepublikaren independentzia prozesuarekin hasten da, gaur egungo gatazkaren jatorria bertatik baitator, nire ustez. Historian hainbat alditan ikusi den moduan, gaizki eginiko bakea izan zen abiaburua. Versaillesko bakeak II. Mundu Gerra ekarri zuen moduan, 1921eko Itun Anglo-irlandarrak (*Anglo-Irish Treaty*), lehenik hegoaldean gerra zibila ekarri zuen, eta, geroago, iparraldean, beste gerra zibil bat.

Horregatik, berezia da Ipar Irlandako gatazka. Batzuek independentzia gerra bezala interpretatu dute, kolonia inperioaren aurka borrokan. Beste batzuek gerra zibil bat bezala ikusi dute, komunitate berdineko kideak elkarren aurka jotzen. Gerra erlijiosoa bezala ere interpretatua izan da, katolikoak protestanteen aurka ikusiz. Egia esan, gauza asko gordetzen ditu bere baitan Ipar Irlandako gatazkak. Gerra honen muina, nire ustez, identitate kontua da: biztanleen gehiengoak Britainia Handiaren parte izan nahi du (hauek protestante, orangista edo unionista deitzen dira) eta gutxiengoak, aldiz, Irlandar Errepublikarekin batu nahi du (hauek katoliko edo nazionalista deitzen dira).

Gehiengo protestante horrek bere estatu autonomoa sortu zuen 1921etik geroztik; eta, gailentasun hori mantentzeko, estatu ez demokratikoa ezarri zuen (Hego Afrikako *apartheid* erregimenarekin parekatu daiteke edo Estatu Batuetako hegoaldeko estatu batzuek zituzten bazterketa erregimenekin). Britainia Handiak ez zuen deus egin egoera hau aldatzeko, eta, mugitzen hasi zenerako, dagoeneko odola isurtzen ari zen. Gutxiengoak, hasieran, modu baketsuan borrokatzen hasi zen, baina estatutik eta protestanteen aldetik indarkeria besterik ez zuen jaso. Gutxiengoaren zati batek armak hartzea eragin zuen horrek eta izugarritzko sarraskia hasi zen. Gerrak, nahiz intentsitatez aldatu, 23 urte iraun zituen. 1993an gauzak aldatzen hasi ziren eta gatazkari irtenbide politikoa ematen saiatu dira harrezkero. Gaur egun oraindik bide horretatik dabilta, nahiz eta oztopo asko agertu.

Lehenik, esan nahi nuke, katoliko eta protestante izenak erabili ditudala, baina horrek ez duela esan nahi katoliko guztiak nazionalistak direnik eta ezta ere protestante guztiak unionistak direnik. Ipar Irlanda, maiz, Ulster bezala izendatu dute, baina Ulsterreko eremua bederatzikonderriz osatuta dago, Ipar Irlandako seiak –Fermanagh, Derry, Antrim, Down, Armagh eta Tyrone– eta Irlandar Errepublikako Cavan, Donegal eta Monaghan. Ulster izena erabiltzen denean konnotazio politikoak ditu, unionistek Ipar Irlanda Ulsterrarekin parekatzen baitute, izate ezberdin bat bezala, eta nazionalistek ez dute termino hau onartzen.

Erabilitako laburdurak:

DUP : Democratic Unionist Party UDR: Ulster Defence Regiment
IRA : Irish Republican Army UFF: Ulster Freedom Fighters
IRB: Irish Republican Brotherhood UUP: Ulster Unionist Party
NICRA: Northern Ireland Civil Rights Association UVF: Ulster Volunteer Force
PIRA: Provisional Irish Republican Army UWC:Ulster Workers' Council
RUC: Royal Ulster Constabulary
RIC: Royal Irish Constabulary
SDLP: Social Democratic and Labour Party

1. Gatazkaren jatorria: Hegoaldeko Irlandaren independentzia eta Irlandaren zatiketa, 1916-1923

XII. mende bukaeran Ingalaterrako Henrike II.ak bere konkista hasi zuen Irlandan, eta Irlandako errege titulua, bere tituluei gehitu zien. Horrela, Irlanda, ingeles monarkiarekin lotuta gelditu zen, eta irlaren konkista XVI. mendean bukatu zen. Nahiz eta konkistatuak izan, Ingalaterrak irlandarrekin beti arazoak eduki zituen, irlandarrak noiz behinka kanpoko boterearen aurka matxinatuz. Matxinada hauek ez zuten garaipenik lortu eta ingelesten errepresioa oso bortitza izaten zen. Ingelesen aurkako gorroto sentimendua oso errotua zegoen irlandarren artean, irlandar ezaugarri kulturalen aurka bideratua zegoelako errepresioa: hizkuntza, erlijio katolikoa, musika, janzkera, ohitura zaharrak, etab.

Ulsterreko eskualdean, ingelesten aurkako erresistentzia oso gogorra izaten zen eta ingeles monarkiak erresistentzia honekin bukatzeko, kolonizazio estrategia zabala eraman zuen praktikara. Horrela, Ulsterrera, Ingalaterratik, Galesetik eta Eskoziatik ekarritako etorkin familia protestanteak iristen hasi ziren. Kolonizazioa XVII eta XVIII. mendeetan burutu zen eta irlandarrentzat ondorio latzak izan zituen: lurralde honetatik kanporatuak izan ziren edota bertan morroi bezala gelditu behar izan zuten. Orduetik aurrera, Ulsterreko probintzia Ingalaterraren aldeko loialistena bihurtu zen, eta, bertan, bi komunitateen artean, gorrotoa ez zuen estali denborak.

XIX. mendearen azkenengo hamarkadetan eta XX. mendearen hasieran, Irlandako gizartean, sentsibilitate gaelikoa (katolikoa eta nazionalista) eta sentsibilitate orangista (protestantea eta unionista) berpiztu ziren. Irlandaren independentzia lortu nahian, hainbat erakunde sekretu eta klandestino sortu ziren: *Irish Republican Brotherhood* (IRB) edota *Irish Citizen Army* (ICA)¹. Erakunde hauek, elkarte kulturaletan gorde ziren; adibidez, Gaelikar Ligan edota Gaelikar Kirol Elkartean, eta, garai hauetan beraien eginkizun nagusiak, irlandar nazionalismoa bultzatzea eta zabaltzea izan ziren. Orangistak ere, beraien pribilegioak eta *Union Act* delakoa (Britainia Handiarekiko lotura) babesteko antolatuta zeuden; batez ere Ulsterreko probintzian eta Orangeko Ordenaren inguruan *Orange Order* izenekoa².

XX. mende hasieran, autogobernu legearen inguruan berpiztu zen gatazka. Britainia Handiko gobernuak, Irlandari autonomia txiki bat eman nahi zion, irlandar nazionalisten aldarrikapenak isilarazteko. Arazoa, Irlanda osoari parlamentu

¹ Erakunde txiki hauetatik, XX. mendeko bigarren hamarkadan, lehenik 1913an Irlandar Bolondresak (*Irish Volunteers*) taldea eratu zen eta 1916ko Pazkoko erreboltan *Irish Republican Army* (IRA). Ezberdindu beharra dago, IRB eta ICA erakunde oso txikiak zirela eta irlandar gizartean eragin urria zutela. Bazterreko taldeak ziren eta beraien ideia iraultzaile, sozialista eta errepublikarrek oihartzun apala zuten eta Sinn Fein, 1907an sortutako alderdia beren isla politikoa litzateke.

² Rogelio A, *Irlanda del Norte. Una historia de guerra y la búsqueda de la paz*, Madrid, Editorial Complutense, 2001, 14 eta 15. orrialdeetan. Orangeko Ordena 1795ean nekazari legeak eragindako bortizkeria sektarioaren ondoren sortu zen eta eliza protestantearekin harreman oso estuak zituen. Bere izena 1690ean izandako Boyneko batailatik dator, non Gillermo Orangekoak Jakobo II.a katolikoa garaitu baitzuen. Orangeko Ordena unionismoaren ikur nagusietakoa zen eta da eta Ulsterren eragin handia izan du beti.

autonomo bakarria ematen zitzaiola zen eta unionistak autogobernuaren aurka agertu ziren. Unionistek pentsatzen zuten, autonomia Inperio Britainiarra zatitzeko lehenengo urratsa zela eta Irlandako parlamentuan nazionalisten aurrean gutxiengo garbian geldituko zirela.

1912 eta 1914 bitartean unionistek, beren indarrak kalera atera zituzten Ulsterreko eskualdean, *Ulster Volunteer Force* (UVF)³ osatuz. UVF-ak unionista populaziotik 100.000 kide erreklutatu zituen, eta Irlandan ikusten zuen gerrarako prestatzen hasi zen (armen kontrabandoa, instrukzio militarra, unitateen osaketa etab.). Unionisten jarrera Britainia Handiko Gobernuaren aginduen aurkakoa zen eta britainiar ordenaren aurkako matxinada garbia, baina Londresko gobernuak ez zuen ordena berrezartzeko ahaleginik egin, bertako buru militarrek unionisten aldekoak baitziren. Lehenengo Mundu Gerra pizteak eztabaida eta tentsioa gutxitu zituen, eta Irlandako alderdi politiko guztiek erabaki zuten autogobernuaren legea gerra amaitzerako uztea.

UVFaren aurrean erreakzio moduan 1913an *Irish Volunteers* deituriko indar paramilitarra sortu zuten irlandar nazionalistek eta 180.000 kide erreklutatzerantz iritsi zen. Erakunde honen atzean, IRB eta ICA ezkutuko erakundeak zeuden eta bolondresek UVF-ak egiten zituen jarduera berdina egiten hasi ziren. Baina britainiar agintariek ez zuten berdina jokatu, eta bolondres hauen jarduerak gelditzen saiatu ziren. Irlandarren borroka grinaz baliatuz, Gerra Handirako 200.000 irlandar, katoliko eta protestante erreklutatu zituen britainiar gobernuak. Komunitate bakoitzak, bere kideak gerrara bidali zituen, beren interesak defendatzeko, horrela Britainiar Gobernuak gerra amaitzean beren errebindikapenak kontuan hartuko zituelakoan. Irlandako katolikoek gehiengoak, autogobernuaren aldekoak ziren eta Britainia Handiaren parte izaten jarraitu nahi zuten; soilik bazterreko alderdi eta ezkutuko erakundeek sinisten zuten, Irlandako Errepublika independentean: Sinn Fein, IRB, ICA etab. Erakunde klandestinoak eta bolondresen zati bat Alemaniarekin konspiratzen hasi ziren, 1916ko Aste Santurako altxamendua prestatzeko.

Pazkoko errebolta militarri porrot bat izan zen. 700 irlandar elkartu ziren eta Dublingo leku estrategikoak hartu zituzten. Errebolta horretan, erakunde nazionalista guztiak bateginik, *Irish Republican Army* (IRA) sortu zuten. Aste betean britainiarrek altxatuak garaitu zituzten, eta, altxamenduan parte hartzeagatik edo laguntzeagatik, 3.500 irlandar atxilotu zituzten. Irlandar katolikoek jarrera altxamenduaren aurkakoa izan zen eta gutxiengo batek soilik agertu zuen errebeldeen aldeko jarrera. Errebolta buruak (Connolly, Pearse, Plunkett etab.) ingelesek afusilatu zituzten eta afusilatze hauekin errepublikar kausarentzat martiri berriak sortu zituzten. Orduan, katolikoek errepublikaren aldeko kausa propiotzat hartu zuten eta Alemaniaren aurkako gerraz nazkatuta zeudela adierazi zuten. Lehenik hauteskunde partzialetan ikusi zen independentziaren aldeko indar hau eta gero hauteskunde autonomoetan, Sinn Feinen bilduta.

³ O'Beirne, J, *Historia de Irlanda*, Madrid, Cambridge University Press, 1999. 157 eta 158 orrialdeetan. Aipatu beharra dago, UVF erakundea 1922-1923 arte aktiboan egon zela eta gero bere kideetako asko RUC-ean sartu zirela. 1965ean erakundearen birfundazioa egin zen, talde paramilitar loialista moduan.

Pazkoko errebolatik aurrera, Britainiar Gobernuari Irlandako arazoa eskuetatik joaten ari zitzaiola ikusi zen, eta, egoera baretzeko, erreboltan parte hartutako kideak aske utzi zituzten. Horrela, errebeldeen artean buruzagi berriak agintera iritsi ziren: Michael Collins, Eamon de Varela, Cathal Brugha etab. Lehenengo hau, IRB-aren bitartez, Sinn Fein eta IRA-ren buru nagusietako bat bihurtu zen eta beste altxamendu bat prestatzeari ekin zion. Sinn Fein-ek 1917an Irlandako Errepublika aldarrikatu zuen, eta Errepublikaren Gobernu klandestinitatean eratu zuen; baita *Dail Eireann* izeneko ere (Irlandako Parlamentua). Sinn Fein eta IRA-ko buruen artean, barne tentsioa zen nagusi, iraultzaile eta autonomisten artean. Collins bide armatuaren defendatzaile bakarra zen.

Sinn Feinek 1918ko Gerra Handiko bake konferentzietan parte hartu nahi zuen, irlandar arazoa bertan eztabaidatzeko eta irtenbide bat lortzeko, baina Britainia Handiak ez zuen onartu. Pazkoko errebolatik 1919 bitartean, IRA-k ekintza oso gutxi burutu zituen, baina 1919ko urtarrilean IRA-ko lurralde-buruek independentzia gerrari hasiera eman zioten, RIC -eko bi polizi hilez Tipperaryn. IRA-ko lurralde-buruek, Dail-aren aginduak bete gabe, atentatuak egiteari ekin zioten. Horrela Irlandako arazoa ingelesentzat gero eta larriagoa bihurtzen ari zen.

Dail-ak, Sinn Fein-aren ezkutuko parlamentuak, IRA-ren ekintzak publikoki ez zituen onartu 1921a arte. Bi erakundeak, nahiko independenteak ziren, nahiz eta kide berdinetaz osatu. Eamon de Valera-k, mugimendu errepublikarraren batasuna bultzatu zuen, bi tendentziak bere pertsonan elkartzuz. Horrela, De Valera-k aurpegi publikoa erakusten zuen eta Collins-ek ixilpekoa.

Britainiar Gobernuak irlandar erakunde nazionalista guztiak ilegalizatu zituen, eta mugimendua zanpatzeko indarra erabiltzea erabaki zuen. Irlandan egoera gero eta okerragoa zen, eta Irlanda guztian erasoak ugaltzen ari ziren. Zonalde batzuetan, Cork-en adibidez, IRA-k gerrila taldeak antolatu zituen, eta nekazari mundua kontrolatzen hasi zen. Britainiarrek, hau guztia gelditzeko, tropa gehiago bidali zituzten, *Black and Tans*-ak⁴. Errepresioa oso bortitza izan zen, britainiarrek herri osoak zakuratu eta erre zituzten eta errepublikarren hilketak egunerokoak bihurtu ziren. IRA-ren ekintzek gero eta errepresio gogorrago sortzen zutenez, IRA-k atxekimendu handiagoa lortzen zuen bitartean.

Bestalde, Ipar Irlandako unionistak, beren kabuz, Britainiar Gobernuarekin elkarriketatzen ibili ziren 1916tik. Irlandan bi autonomia sortzeko helburua zuten: bata Ipar Irlandan Ulsterreko sei konderrietan eta bestea gainontzeko Irlanda, 26 konderriz osatua. Irlandaren bateratzea saihesteko, Ulsterreko sei konderri bertako biztanleria protestantearen eskuetan uzten ziren. Unionisten eta Britainiar Gobernuaren arteko akordio hau, 1921eko lege autonomo berrian islatu zen. Hegoaldeko Irlandan errepublikarrek ez zuten lege berria onartu, eta Irlandar Errepublika bateratuaren alde borrokan jarraitu zuten. Baina Irlandaren partizioa errealitate berria bihurtu zen.

⁴ *Black and Tans*-ak, RIC-aren unitate laguntzaile moduan iritsi ziren baina euren eginkizuna errepresioa burutzea zen. Talde honen izena bertako txakur arraza batetatik dator, eta 'Beltzak eta Beltzaranak' esan nahi du.

Britainiar Gobernuak, Irlandako arazoaz nekatuta, bakea bilatzeari ekin zion eta, horretarako, Dail-aren kide moderatuenekin bake-elkarrizketak hasi zituen. Lloyd George, De Varela-rekin elkarrizketatzen hasi zen eta, lehenik, su-etena adostu zuten, 1921eko uztailaren 21ean hasi zena. Bake konferentzian, Sinn Feineko ordezkariak, ingelesek emandako ituna onartu behar izan zuten. Ituna onartzea, batetik, Irlandaren partizioa onartzea zen, eta, bestetik, Irlandar Errepublikaren ordezkariak, Irlandako Estatu Librea eratzea, Commonwealth-aren barnean geratuko zena eta Britainia Handiko erregeari fideltasuna zor ziona. Britainiarrek irtenbide hau eman zuten, alternatiba gerrarekin jarraitzea izanik; horren aurrean, Griffith eta Collinsek ituna sinatu zuten.

Ituna sinatzeak errepublikarren artean jarrera kontrajarriak agerian utzi zituen. Alde batetik, Itunaren aldekoak zeuden (Griffith eta Collinsen inguruan elkartuak) eta, bestetik aurkakoak (De Varela eta IRA-ko buruak). Itunaren aldekoek, ituna Irlandar Errepublika lortzeko pasatu beharreko trantsizio gisa hartzen zuten, eta, horrekin batera ere, Irlanda elkartzeko bide egokiena zela zeritzoten. Collinsek Ipar Irlandan borrokan zebiltzan IRA-ko taldeei armak eta munizioak bidaltzen zizkien, Ipar Irlandako estatu autonomia ezengonkortzeko. Baina De Varela eta IRA-ko buruontzako itunak porrota adierazten zuen, eta Irlandako Estatu Librea ez zuten onartu. Errepublikarren artean, gerra zibila piztea, denbora kontua besterik ez zen izan.

Itunetik eraturako behin-behineko Gobernu Irlandarraren aurka errebelatu zen IRA eta ez zuen bere gaineko agintea onartu. IRA-ko taldeek, Dublingo epitegiak hartzean, gerra zibilari hasiera eman zioten. Behin-behineko Gobernuaren erantzuna, Irlandako Armada Nazional osatu berria IRA-ren aurka bidaltzea izan zen. Gerra zibilak urte bat inguru iraun zuen (1922-1923) eta borroka nagusiak Dublinen eta Corken izan ziren. Armada Nazionala IRA-ri militarri gailendu zitzaion, 26 konderririk kontrolatuz, eta 11.000 preso hartuz. Gerra zibilak 3.000 hildako eragin zituen eta hauetako bat Michael Collins bera izan zen. Gerra zibilak ez zuen bukaera ofizialik izan. IRA ezkutuan eta kidez txikituta mantendu zen eta bere ekintzak Ipar Irlanda eta Ingalaterrara bideratu zituen.

Ikusi dugunez, gerra eta Irlandaren banaketa ekarri zuten Britainiar Gobernuaren autonomia saiakerak. Ipar Irlandako unionistek beren nahiak lortu zituzten, Ipar Irlandarako autonomia lortuz eta Britainiar Inperioaren barruan mantenduz.

2. Ipar Irlanda, estatu protestantea (1920-1968)

Ipar Irlandan, hegoaldearen independentzia gerra beste modu batean garatu zen. Bertan, irlandar errepublikarrek indar urriagoa zeukaten, eta gerra bi komunitateen artekoa zela esan dezakegu. Britainiar tropek ere parte hartu zuten liskarretan, baina iparraldeko ezaugarri nagusia bortizkeria sektarioa litzateke. Gerra bizilagunen artean egin zuten: hilketak, etxeen zakuraketak eta erreketak, deserriratzeak etab. arruntak izan ziren. Unionistek komunitate nazionalistaren aurka nahi zutena egin zuten beren gehiengoaz baliatuz eta britainiar tropen onarpenarekin. IRA-k, hegoaldean, bere erasoak orokorrean indar okupatzaileen

aurka bideratu zituen eta gatazkaren alde sektarioa ez zen gehiegi agertu. Ipar Irlandan, aldiz, 1920-1922 bitartean, ia 300 pertsonak bizia galdu zuten eta milatik gora zauritu egon ziren, gehienak Belfasten. IRA-ko 400 kide atxilotu ziren eta, borrokan ondorioz, Ipar Irlandako hiri nagusiak guztiz apurturik gelditu ziren.

Britainiar Gobernuak sei konderriei autonomia zabala eman zien eta, horrela, Irlandako arazoa eskuetatik kendu zuen. Unionistek, Ipar Irlandako estatu berria aurrera ateratzeko, gutxiengo katolikoa baztertu zuten. Ipar Irlandako protestanteentzat gutxiengo katolikoak, probintziaren egonkortasuna arriskuan jartzen zuen, zeren gutxiengo horrek probintzia beraren legimitatea ez zuen onartzen, eta bere begiak hegoaldeko Estatu Librean jarriak zituen. Horrela, estatu autonomo protestanteak, bere gehiengoa eta pribilegioak mantentzeko, bazterkerian oinarritutako politika burutu zuen.

Polizia autonomo bat sortu zuten, *Royal Ulster Constabulary* izenekoa (RUC), bere kide gehienak protestateak zirenak. Halaber, poliziari laguntzeko, talde paramilitar legalak sortu zituzten: *Specials A, B & C* izenekoak. Talde hauek, batez ere UVF-ko kide ohiez osatu zituzten, eta kide hauen gehiengoa Orangeko Ordenakoak ziren. Polizia hau sektarioa zen eta komunitate katolikoa zanpatzeko helburuarekin sortu zen.

Gobernu Autonomoak, protestanteen gehiengoa nabarmenago azpimarratzeko, hauteskunde barrutiak manipulatu zituen; horrela botu nazionalista beti botu unionistaren azpian gelditzeko. Gainera udal hauteskundeetan, bakarrik etxeen jabeek eta euren emazteek ematen ahal zuten botua. Katolikoak gizarte maila baxuagokoak zirenez, lege honek hauen kopurua murrizten zuen. Adibidez, Londonderryn 1966an, 20.000 nazionalista eta 10.000 unionista zeuden, eta beraz, hauteskundeak garbiak izanez gero, udaletxea nazionalisten eskuetan egon beharko zen; baina etxeko jabeen legeagatik eta barrutien manipulazioagatik (botu nazionalistak barruti bakar batera bideratuz), udaletxean unionistek gehiengoa zeukaten.

Katolikoek bazterketa beste arlo batzuetan ere egin zen: lan munduan, probintziaren administrazioan eta etxebizitzetan. Lan munduan, administrazio unionistak protestanteei ematen zien lan publikoa eta, lan pribatuan ere, katolikoek bazterketa oso arrunta zen. Probintziako administrazio kideen artean, funtzionario kopuruaren gehiengoa protestantea zen, eta honek bere ondorioak zekartzan. Etxebizitza arloan, etxe publikoak banatzerakoan, udal agintari unionistek komunitate protestanteari gehiago laguntzen zioten. Nazionalista eta unionisten arteko oreka ez apurtzeko, unionistak gehiengo ziren tokietan ematen zieten katolikoek etxebizitza.

1922-1968 bitartean, bi komunitateen arteko liskarrak arruntak izan ziren, eta, noizbehinka, denak eztanda egiten zuen. Garai tarte horretan, bere gerra hegoaldeetik iparraldera eramaten saiatu zen IRA, baina ez zuen arrakasta handirik eduki. Hegoaldean, 1939an IRA legez kanpo utzi zuten eta gelditzen zitzaizkion kideak klandestinitatera pasa beharra izan zuten. Ingalaterran atentatuak egiten eta hegoalde eta iparraldeko muga gerrilla gerra txiki bat egiten saiatu zen IRA. Errepresioa, bai hegoaldeetik eta bai iparraldeetik jaso zuen.

Baina IRA ez zuten desagertarazi, eta hor mantendu zen, Irlandako hegoalde eta iparraldean, momentu egokia itxaroten.

3. Gatazkaren berpiztea: Indarkeriaren garaia (1968-1993)

Estatu protestanteak, bazterkeriarekin jarraitzean, mugimendu sozial berria sortzea ekarri zuen: *Northern Ireland Civil Rights Association* (NICRA). Erakunde honek bazterkeriarekin amaitu nahi zuen, eta, horretarako, erreforma zabalak proposatzen zituen. NICRA erakunde pazifista eta ez-sektarioa zen, eta bere kideak bi komunitatekoak ziren. Bere partaideen artean IRA-ren aldekoak zeuden, baina IRA-ren kontrolpetik kanpo zegoen. NICRA-k komunitate katolikoaren babesa jaso zuen eta 1968an bazterketa salatzeko Ipar Irlandako hiri eta herrietan manifestazioak egiteari ekin zion. Manifestazio hauek unionisten gorrotoa eta sumindura eragin zuten, eta unionistek kontramantestazioak antolatu zituzten. Manifestazio hauek egitean, bi komunitateen arteko liskarra berriz piztu zen, baina, beste aldietan ez bezala, indar handiagoz.

Indarkeriaren hazkundera geldiarazteko, O'Neill-ek, unionista moderatuen buru eta Ipar Irlandako Gobernu Autonomoko presidentek, NICRA-ren errebindikazioak kontuan hartuz, estatu autonomoa erreformatzeari ekin zion. Baina erreformak berandu iritsi ziren, liskarrak eta indarkeriak kaleak hartuak baitzituen. Unionista gogorragoek gobernutik baztertu zuten O'Neill eta ordena mantentzeko RUC polizia komunitate katolikoaren aurka bidali zuten.

1969 hasieran, NICRA-ren manifestazio baten ondorioz, katoliko eta protestanteen artean liskarrak hasi ziren Londonderryn. Poliziak egoera baretu ordez, katolikoak erreprimitzeari ekin zion, Bogside auzo katolikoan sartuz. Londonderryko borrokek komunitate katolikoaren sumindura ekarri zuten, eta borrokak Ipar Irlanda osora hedatu ziren. Londonderry eta Belfasteko auzo katolikoak Gobernu Autonomoaren aurka matxinatu ziren. Bertan *No-go areas* deiturikoak eraiki zituzten, auzoak barrikadekin itxiz eta poliziarri bertan sartzea eragotziz. Ezagunena Londonderryko *Free Derry* litzateke. Kale liskarrez gain, tiroteak gero eta arruntagoak bihurtzen ari ziren. Poliziak armak oso erraz erabiltzen zituen, hildakoak eta zaurituak eraginez. Belfasten egoera oso latza bihurtu zen egun hauetan. Ondorioz, auzoen benetako banaketak egin ziren, eta 1505 familia katolikok eta 315 familia protestantek, kale liskarreatatik, beren etxeetatik alde egin behar izan zuten, "ghettizazio" prozesua abian jarritz.

Egoera baketzeko, Britainiar Gobernuak soldaduak bidali zituen, bi komunitateak banatzeko eta hasieran katolikoek harrera ona egin zieten. Gobernu Unionista berria, ez zen sartu *No-go areas* delakoetan eta agintari katolikoekin elkarriketak hasi zituen. Baina liskarreatatik IRA indar berriturik atera zen, eta bere ekintzak gero eta ohikoagoak bilakatzen hasi ziren: soldadu eta polizien aurkako erasoak, bonba leherketak etab. eta, gainera, protestante eta polizien aurrean komunitate katolikoaren defendatzaile bezala agertu zen. IRA gero eta pisu handiagoa hartzen hasi zen eta *No-go areas* haietan, askatasun osoz ibiltzen zen bere ekintzak prestatzen eta burutzen.

1969ko abenduan, IRA-ren barnean banaketa gertatu zen. Dublingo IRA-ren buruak, Irlandaren batasuna eta sozialismoa lortzeko, bide baketsuak erabiltzearen alde agertu ziren, eta, iparraldeko liskarreatatik, IRA ez zen gai izan komunitate katolikoa babesteko. Horregatik, iparraldeko IRA-ko buruak banatu egin ziren eta *Provisional Irish Republican Army* (PIRA) eta *Provisional Sinn Fein* eratu zituzten, *Official Irish Republican Army* (OIRA) eta *Official Sinn Fein*-en aurrean⁵.

Irlandar Errepublikak, Ipar Irlandako egoera ikusita, eskuak sartu zituen. Alde batetik, Irlandako Armada Nazionala mugara mugitu zuen, eta protestanteek inbasioaren arriskua ikusi zuten. Mugetan, katolikoentzako errefuxiatu kanpamenduak eraiki zituzten. Garai hartan, Irlandako Dail-aren buru Fianna Fail alderdia zegoen eta gobernuko kide batzuek, ezkutuan, IRA-ri laguntza ematen zioten: armak, munizioa, dirua, instrukzioa etab. Laguntza honek 1969-1972 bitartean iraun zuen eta Dail-eko beste kideek jakin zutenean, izugarritzko istilu politikoa piztu zen. Hurrengo hauteskundeak oposizioko alderdiek irabazi zituzten, Fine Gael eta laboristek. Gobernu berri horrek, Iparraldeko politikarekiko, aldaketak egin zituen eta Britainia Handiarekin kolaboratzen hasi zen, IRA-rekin amaitzeko. Hala, Dublingo gobernu pisu handiagoa hartzen joan zen, Ipar Irlandako politikan eta bake elkarrizketetan.

Iparraldean, bitartean, Britainiar Gobernuak, tropak bidalita, gatazkan gero eta sartuagoa zegoen. Tropak denbora laburrean mantentzeko intentzioarekin bidali zituen, eta ordena berrezartzean erretiratuak izateko. Londresek, erregimen unionista berrosatzeko, erreforma programa bat bultzatu zuen, komunitate katolikoa bereganatzeko intentzioarekin. Zenbait erreforma burutu ziren, batez ere, hauteskunde sistema bidezkoagoa ezartzeko eta lan munduan bazterkeriarekin amaitzeko. Baina RUC poliziak eta *B Specials* gorpu paramilitarrak bere lanak egiten jarraitu zuten. RUC-ean katolikoak sartzeko propaganda egin zen, baina arrakasta urriz eta bestetik, *B Specials*-en ordean, *Ulster Defence Regiment* (UDR) osatu zuten, militarren agindupean. Arazoak hor jarraitzen zuten, bi polizia hauek sektarioak izaten jarraitzen zutelako. Gainera, erakunde hauetako kide batzuek, gatazkan sortutako talde paramilitar loialistekin zuzenean kolaboratzen zuten.

Katolikoek eta Britainiar Armadaren arteko harreman onen haustura, 1970eko udaberrian gertatu zen. Buruzagi militarrek esan zutenean kaleetan *kotel molotov*-ak manipulatzeko ari zirenak tirokatu egingo zituztela, eta, gainera, armadak udako martxa orangistei babesa eman zientean, martxa hauek auzo katolikoetatik pasatzean. Armadak, liskarrak gelditzeko, polizia lanak hartzen zituen heinean, katolikoek artean errepublikanismoa toki gehiago hartzen ari zen. Uda hartan, armadak operazio zabala burutu zuen, IRA-ri armak errekitatzeko helburuarekin, Belfasteko auzo katolikoetan. Operazioak errepublikarrekin enfrontamentuak izatea eragin zuen, bost hildako eraginez eta liskarrak hiri osora hedatzea. Katolikoek artean, IRA borroka propangandistikoa irabazten ari zen,

⁵ OIRA, gatazkan identitate ezberdindua mantentzen saiatu zen, baina bere garrantzia PIRA-ren aurrean galduz joan zen. OIRA nahiz eta bide baketsuaren alde egon, momentu berezi batzuetan armak erabili zituen. PIRA sortzeko, erlijio katolikoa onartzea eta Dublingo gobernuko kide batzuekin izandako elkarrizketa eta akordioek garrantzia handia izan zuten. Hemendik aurrera, IRA izena erabiltzen hasi zen PIRA.

katolikoek defendatzaile bakar moduan agertuz, eta Britainiar Armada estatu unionistaren morroi moduan agertaraziz. 1971ko otsailean, IRA-k lehenengo soldadu britainiarra hil zuen tirokatuz. Horrela IRA-k desgaste-gerra hasi zuen Britainiar Armada bala eta lehergailuekin Irlandatik botatzeko.

1971n IRA-ren atentatuak eta ekintzak asko hazi ziren. IRA-k boluntario asko erreklutatu zituen eta kanpotik etorritako diruarekin (AEB eta Irlandatik), mota guztietako armen jabe egin zen. IRA-k brigadak eta batailoiak osatu zituen (nahiz ez zituzten armada erreal baten kide kopuruak) eta lurralde zehatz baten defentsaren ardura eman zien. Britainiarrek *internment* politika praktikara eraman zuten, ekintza terroristekin zerikusia izanez gero epaiketarik gabe kartzeleratuz. Horrela, 1971-1975 bitartean, 2.158 pertsona epaiketarik gabe, froga ziurrik gabe, kartzeleratuak izan ziren. Politika honek Londresentzat porrota suposatu zuen, zeren katolikoak terroristatzat edo terrorismoaren laguntzailetzat hartzen ziren, ezberdinketarik egin gabe. Arlo militarrean, IRA-k *internment*-aren aurka ekintzak haztea eragin zuen: 1971n *internment* ezarrita egon baino lehen, indarkeriarengatik 28 hildako izan ziren eta urte berean *internment* ezartzean, urte bukaeraraino 145 hildako. Ikusten denez, indarkeria ikaragarri hazi zen 1971. urtean.

1972an *Bloody Sunday* ('Igande Odoltsua') izeneko egun lazgarria gertatu zen. Garai hartan *internment*-aren aurkako hainbat manifestazio antolatu zituzten eta NICRA-k antolatutako batean, Londonderryn, manifestarien eta soldaduen artean liskarrak sortu ziren. Soldaduek euren fusilak manifestarien aurka erabili zituzten, 14 hildako eta zauritu asko eraginez. Soldaduek IRA-k eraso ziela esan zuten, eta Britainiar Gobernuak gertatutakoa estaltzen saiatu zen. Ekintza hauek katolikoek gorrotoa handitzea ekarri zuten eta IRA-ren indarkeria ere handitzea eragin zuen. IRA-k beste borroka propagandistiko bat irabazi zuen eta *Bloody Sunday*-ak errepublikar kausarako martiri berriak sortu zituen.

IRA-ren ekintzen hazkundearen aurrean (Belfasten, adibidez, egun bakar batean, errepublikarrek 20 lehergailu lehertu eta 11 pertsona hil zituzten) Britainiar Armadak *Motorman* operazioa burutu zuen, *No-go areas* delakoetan sartuz eta deuseztatuz. IRA-ren ekintzen erreakzio moduan, unionisten artean, talde loialista paramilitarrak sortu ziren eta katolikoek aurka ekintzak egiten hasi ziren. Talde hauek, auzo protestanteen defentsarako taldeetatik sortu ziren 70 eta 80ko hamarkadetan. Bi hamarkada hauetan talde hauek gaizki antolatuak zeuden, eta indar gutxi zeukaten. Beraien ekintzak, batez ere, katoliko errugabeen edo IRA/Sinn Feineko ustezko kideen aurka bideratu zituzten.

Gobernu Autonomoa krisi batetik bestera zihoan eta presidenteen saiakerek, ahalik eta elkartasun handieneko gobernu osatzeko, porrot egiten zuten. Batzuetan, nazionalista alderdien oztupoengatik edota unionista erradikalek jarritako oztupoengatik. Estatu unionistak, katolikoek aurrean legitimizazio osoa galdu zuen eta erreformak berandu iritsi ziren katolikoek iritzia aldatzeko. Horregatik, Londresek 1972an Ipar Irlanda zuzenean gobernatzea erabaki zuen, eta Ipar Irlandarako ministro bat izendatu zuen. Ministro honek botere handia edukiko zuen (Ipar Irlandan kokatutako armadaren burua, poliziaren burua eta Ipar Irlandako exekutiboaren buru izango zen) eta historialari batzuen iritziz, erregeorde kolonialaren figurarekin parekatu daiteke. Ministroak exekutibo

baten laguntza zuen, non unionista eta nazionalista alderdietako kideek parte hartzen zuten.

Britainiar Gobernuak 1973an bakea lortzeko elkarrizketa inizatiba handia izan zuen, Irlandar Errepublikarekin elkarrizketatuz. Konferentzia hauetatik, Sunningdale-ko Akordioa (*Sunningdale Agreement*) atera zen: Irlandak Ipar Irlanda Britainia Handiaren parte zela onartu zuen eta Ipar Irlandako populazioaren gehiengoaren eskuetan utzi zuen aldatzeko aukera (autodeterminazio eskubidea). Bide horretatik jarraituz, garrantzitsua izan zen 1985eko Akordio Anglo-irlandarra, non bide hau berriz azpimarratu zuten eta indarkeriaren aurkako apustua egin zuten. Akordio hauen bitartez, Irlanda eta Britainia Handiaren arteko harremanak normalizatuz joan ziren.

Horrela, 1974an protestanteek *Ulster Workers Council* (UWC), langile protestanteen erakundean bildurik, batetik, Sunningdaleko akordioaren aurka eta, bestetik, exekutibo berriaren aurka greba zabala egin zuten. Alderdi unionistek eta talde paramilitar loialistek, greba eraginkor bat burutu zuten eta probintzia osoa 14 egunez geldiarazi. Grebak izandako arrakastaren ondorioz, exekutiboko kide unionistek dimititu egin zuten eta exekutiboa erortzea eragin zuten. Hortik aurrera, ez zen boterea unionisten eta nazionalisten arteko botean konpartitzeko saiakera gehiago egin.

Errepublikanismoan, 1972-1975 bitartean, IRA eta Britainiar Gobernuaren artean elkarrizketak egiten saiatu ziren. IRA-k bere errebindikazioak gobernuari azaldu zizkion (tropen erretiratzea, amnistia...), baina ez zen inolako akordiotara iritsi. IRA garai hartan, bere indarraren gorenean zegoen (1972an Ipar Irlandan 10.628 tiroteo egon ziren, gehienetan IRA-ren parte hartzearekin) eta bide armatuarekin bere helburuak lortuko zituela uste zuen. Elkarrizketak izateko, bi su-eten burutu zituen 1972 eta 1975 urteetan.

IRA-k, Britainiar Armadaren operazioengatik, *No-go areas* delakoen deuseztaketarengatik, 1972an klandestinitatera pasatu behar izan zuen. 1975erako bere egiturak guztiz txikituta zituen eta IRA-ko kide asko kartzelan zeuden. Britainiar Armada, eraginkortasun handiarekin jotzen ari zen. Hau ekiditzeko IRA-k batailoi eta brigaden antolaketa alde batera utzi zuen eta antolaketa zelularra erabiltzen hasi zen. Zelula bakoitza, hiru eta bost bitarteko kideez osatua zegoen, eta zelula hauek guztiz independienteak ziren. Horrela, taldeko bat eroriz gero, soilik bere zelulako kideak jartzen zituen arriskuan. IRA-k, gainera, bere ekintzetan aldaketak egin zituen, militanteen ihesa ziurtatzeko. Hala, gero eta gehiago hasi zen lehergailuak erabiltzen, bonbak, bonba-autoak, bonba-lapak, estolderi-tranpak, minak, morteroak, etab. IRA-k bestalde, Irlandar Errepublikan ezkutuko kanpamenduak zituela uste da, eta bertan bere aktibistak ezkutatu eta trebatzen zituela. 1978an, J. M Glover Britainiar Defentsako Informazio Zerbitzueta buruaren iritziz, IRA-k 1.700 kide zituen aktiboan eta ehundaka laguntzaile, mugaren alde batean eta bestean. IRA-k auzune katolikoetan, ezkutuko botere eraginkorra mantendu zuen, kriminalak, informadoreak eta traidoreak epaituz eta bere justizia eginez, horrela, katolikoek onespena lortuz.

1976an Britainiar Gobernuak etorkizunerako estrategia zabala egiten hasi zen. Londresek bide polizial-militarra eta politikoa konbinatzea erabaki zuten. Bazekien IRA-rekin ez zuela amaituko, baina haien ekintzak murrizten saiatuko zen. Helburu horrekin, RUC polizia modernizatzeko programa bat hasi zuten, poliziak gatazkan bere lekua har zezan, armadaren ordean. Armada, zonalde katoliko gogorrenetan mantendu zuten soilik. Garai hartatik aurrera, gerra-ezkutuak protagonismoa hartu zuten: espioitza, informazioa, kontraintformazioa, ezkutuko operazioak etab. IRA-ren operatibotasuna mugatzeko, britainiarrek SAS eliteko talde militarra Ipar Irlandara bidali zuten. Talde honek IRA-ren aurkako borrokan arrakasta handia izan zuen. Baina bere metodoak gerra zikinetik hurbilago zeuden forma legetatetik baino.

Britainiar Gobernuak IRA-ko aktibistak kriminalizatzeko politika erabili zuen eta kartzelatan *Special category status*⁶ kendu zieten. Horrela, kriminal arrunt gisa hartu zituzten eta kriminal arrunten arropa berdina eman zieten. Errepublikarren sumindura ekarri zuen horrek eta horren kontra protestak ugaltzen hasi ziren. Lehenik kartzelak emandako arropak ez janzteak erabaki zuten presoek, eta beren preso-politiko izaera kontuan hartu ez zitzaienenez, neurri gogorragoak hartu zituzten. Hala "protesta zikina" egin zuten, beren behar fisiologikoak geletatik zabalduz. Baina agintari britainiarrek ez zuten deus aldatu, eta 1981ean presoek gose-greba hasi zuten. Bitartean, Sinn Feinek kalean propaganda kanpaina zabala egin zuen presoen egoera salatzeko. Gose grebaren ondorioz, IRA-ko 10 militante preso hil ziren eta katolikoek martiri gisa hartu zituzten.

Kriminalizatzeko politikak, porrot egin zuen, zeren grebarekin gazte belaunaldi berri bat lortu zen mugimendu errepublikarrerako. Bestalde, Sinn Feinek abstentzioa alde batera utzi zuen, eta, iparraldean nahiz hegoaldean, hauteskundeetan parte hartzen hasi zen. Iparraldean, nazionalisten artean, botu kopuru nabarmenak lortzen hasi zen, biztanleria osoaren bozken %10-15 bitartean lortuz.

1985eko Akordio Anglo-irlandarrak garrantzi handia izan zuen Ipar Irlandarako. Akordio honetan, Britainiar eta Irlandar Gobernuak beren betiko jarrera utzi zuten, eta Ipar Irlandarako soluzio politiko bat bilatzea erabaki zuten. Ipar Irlandako estatusa aldatzekotan, biztanleen gehiengoaren oniritziarekin izan beharko zen, autodeterminazio eskubidearekin, alegia. Unionistak eta errepublikarrak, ez ziren batere gustora gelditu akordioarekin. Baina urte horretatik aurrera, Britainiar eta Irlandar Gobernuak ezkutuko elkarrizketak hasi zituzten alderdi eta erakunde armatuekin.

Hala, errepublikanismoan jarrera aldaketa hasi zen. Batetik, Sinn Fein IRA-tik gero eta independienteagoa bihurtzen joan zen, eta buru politiko berriak hartu zuten alderdiaren gidaritzan. Bazirudien, errepublikanismoaren tendentzia bat, armak uzteko prest zegoela eta bide politikoan, indarkeriarik gabe, hasi nahi zuela. Baina IRA-ri, bere urtetako borroka uztea eta politikan sartzeko urratsa zaila egiten zitzaion. Hala ere, 1985-1993 bitartean, IRA-ren barruan, aldaketen eta borroka uzteko jarreraren aldeko iritzia gailendu zela dirudi. Urte hauetan, IRA-k desgaste gerrarekin jarraitzen zuen eta bere ekintzak Ingalaterrara hedatu

⁶ Maila bereziko estatusa esan nahi du.

zituen. Britainiar Gobernuak, su-eten jarraia hasteko presionatzen zuen IRA, horrela, Ipar Irlandako alderdi guztiekin bake elkarrizketak hasteko. Londresek, bestalde, unionista talde paramilitarrak ere presionatzen ari zen, hauen su-eten bat lortzeko helburuarekin.

4. Bakea bilatzen 1993-1998

Lehenago esan bezala, bakea lortzeko ahaleginak Irlandar Errepublikatik, Britainiar Gobernuatik eta Ipar Irlandarako *Social Democratic and Labour Party* (SDLP) alderdi nazionalista konstituzionaletik etorri ziren. Ipar Irlandako gatazkaren hiru osagai hauek Sinn Fein eta IRA presionatzeari ekin zioten, IRA-k armak isilaraz zituzten. Estatu Batuetako irlandar jatorriko populazioak ere bere gobernua presionatzen zuen, Ipar Irlandako arazoa ez atzetzeko. Horregatik, bake prozesuan zehar, Britainiar Gobernua presionatu eta bake elkarrizketetan parte hartu zuten AEB-k.

Errepublikarren artean, Gerry Adams eta Martin McGuinness buru politikoak, IRA-rekin zuzenean elkarrizketak burutzen ari ziren eta, gero, elkarrizketa hauetara, Britainiar Gobernua batu zituzten. Horrela, IRA-k 1993ko otsailean, su-eten iraunkor bat hasi zuen baina ez zuen publikoki adierazi. Gatazkarekin amaitzeko borondate politikoa agertu zuten errepublikarrek eta, helburu hori lortzeko, IRA su-etena hastera behartu zuten. Hala eta guztiz ere, Ipar Irlandan indarkeriak jarraitzen zuten, loialistek beren ekintzak gogortu baitzituzten eta, ondorioz, IRA-k errepresaliak hartu zituzten. Unionistek errezelu handiarekin ikusten zuten Sinn Feinen parte hartzea elkarrizketetan. Baina IRA-k 1994ko abuztuan, pauso handi bat burutu zuen, su-etena publikoki iragarri zuenean. Talde paramilitar loialistek ere, hiru hilabete geroago su-etena hasi zuten, elkarrizketetan parte hartzeko.

1995eko lehenengo hiru hilabeteetan, Sinn Fein eta britainiarrak bost alditan elkartu ziren. Sinn Feinek errebindikazio tradizionalak plazaratu zituzten (IRA-ko presoan amnistia, presoan hurbilketa, RUC poliziaren disoluzioa, armada erretiratzea eta alderdi guztiekin kondiziorik gabe elkarrizketak hastea). Britainiar Gobernuak erantzun zuen, IRA-k armak eta lehegailuak eman behar zituztela. Armak ematea arazo bat bihurtu zen, eta elkarrizketek geldialdia izan zuten. Sinn Feinek bestalde, IRA desarmatuz gero, talde loialistek ere desarmatu behar zutelako aldarrikatu zuen. Britainiarrek, bakea lortzeko borondatea zeukatela erakutsiz, Irlandako mugetatik eta Belfastik soldaduak erretiratu zituzten. Bake bultzatzaileen artean, elkarrizketak eta armen arazoa, banatzea erabaki zuten. 1995 bukaeran, britainiarrek 88 preso loialista eta errepublikarrei baimen penitentziarioa eman zieten, bakerako borondatea erakutsiz, berriro.

Bake prozesuak esperantza handiak piztu zituzten, baina bake prozesuaren alde zuzenean egiteak kostu politiko handiak ekarri ahal zituzten. Hau batez ere, unionista alderdietan ikusi zen, hegoalde-iparralde elkarrizketak eta organu bilateralak ezartzea mehatxu gisa ikusi baitzuten unionistek. Alderdi hauen oinarri sozialak, prozesuaren aurka agertu ziren, eta, horrek, unionistak prozesuaren hainbat arlotan atzera jotzea eragin zuen. Unionisten beldurra zen Irlandar

Errepublikak gero eta parte hartze handiagoa zeukala. Ondorioz, IRA-k armak ez zituela emango esan zuen.

Armen eta indarkeriaren arazoarentzako, *Mitchell* deituriko komisio independentea ezarri zen. Bere helburua, talde paramilitarren desarmea ziurtatzea zen. Ipar Irlandako kaleetan, intentsitate gutxiko gerrak jarraitzen zuen oraindik: jipoiak, liskarrak, enfrentamentuak, IRA-ren epaiketak etab. Komisioak, hau guztia amaitu nahi zuen.

IRA-k 1996ko otsailean su-etena hautsi zuen, Britainiar Gobernuaren presionatzeko⁷. Baina indarkeriarekin hasteak, AEB-tako laguntza galtzea zekarren, eta laguntza eta presio indar hau Irlanda elkartu bat izateko pieza oso baliagarria zen. Nahiz eta IRA-k gerrarekin jarraitu, elkarrizketei eutsi zien beste alderdiek eta paramilitarrek. Britainiarrek Ipar Irlandarako hauteskundeak antolatu zituzten bake foroa osatzeko: foroan ordezkariak zutenek, parte hartuko zuten elkarrizketetan. Horrela, UUP, DUP, SDLP, Sinn Fein eta Alliance Party-k eserlekuak lortu zituzten, baina Sinn Fein baztertu egin zuten IRA-k beste su-eten bat hasi arte.

1997an IRA-k barne eztabaida gogorrak izan zituen eta su-eten berria hastea erabaki zuen. Errepublikarrek, indarkeriaren estrategia erabiltzen zuten, indarkeriara bueltatzearen mehatxuaren bidez, britainiarrek kontzesio gehiago egin zitzaten. Sinn Fein-ek IRA presionatzen zuen bake prozesuan parte hartzearen zezan, baina IRA-ren barruan talde bat banatu egin zen eta *Real Irish Republican Army* (RIRA) osatu zuen, bake prozesuaren aurka agertuz. RIRA-ren sorrerak talde paramilitar loialistek su-etena haustea eragin zuen; horrela UFF-k eta LVF-k ekintzak egiteari ekin zioten. Ondorioz, erakunde hauen beso politikoak prozesutik baztertuta geratu ziren.

Gainontzeko alderdiek, Ostiral Santuko Akordioa (*Good Friday Agreement*) erdietsi zuten. Hitzarmenak unionisten eta nazionalisten artean oreka bilatzen zuen. IRA-ri desarmea eskatzen zitzaion, baina ez berehala. Ipar Irlandarako Stormont-en asanblada autonomo berria osatu zen. Asanblada horrek komite exekutibo bat aukeratuko zuen eta alderdi unionisten eta nazionalisten gehiengoaren parte hartzea izan beharko zuen. Komisio independente batek RUC polizia erreformatu beharko zuen. Armada kaleetatik erretirako zen, eta bi urteren buruan presoak kartzeletatik askatuko zituzten.

Bake prozesuaren aurkako oposizioak gerrarekin segitu zuen. RIRA-k lehergailuak jartzen jarraitu zuen eta Omagh-en izugarritzko sarraskia eragin zuen, 31 pertsona hilez. Atentatu horrek, populazio osoaren gaitzespena eragin zuen, eta Sinn Fein eta IRA-ri sinesgarritasun guztia kendu zion. DUP alderdi unionista erradikalak bake prozesua uztea ekarri zuten RIRA-ren ekintzek. Armen arazoa berriz agerian gelditu zen, eta Sinn Feinek Gerry Adamsen eskutik bakea eta bide demokratikoaren aldeko apostu garbia egin zuen. Gerry Adamsek, gainera, RIRA-ren aurkako salaketa gogorrak egin zituen. RIRA-ren atentatuak sortutako gaitzespenagatik operazio militarrik eten egin ziren. Hurrengo egunetan, IRA-k RIRA-ko kideei mehatxa egin, eta su-etena hastera behartu zituen.

⁷ Bada liburu bat, euskaraz, 1994-1996 arteko lehen su-eten garaiko Belfasten kronika bizia eskaintzen duena (cf. Murua-Uria - Unzueta, 1996).

Errepublikarren erakunde paramilitarrek bake prozesuaren aldeko apostua egin zuten, nahiz eta unionista paramilitarrek erasoekin jarraitu.

1969-1998 bitartean, Ipar Irlandako gatazkak 3.298 hildako eta 38.000 zauritu eragin zituen. Indarkeriak, Ipar Irlandako mugak zeharkatu eta Irlandar Errepublika eta Ingalaterra ere kolpatu zituen. Ostiral Santuko Akordioak ez du oraingoz benetako bakerik ekarri, eta bake prozesuaren aurkako etsaiak bi aldeetan daude. Gatazka bide politikoen bidez konpontzeko ahaleginek hor segitzen dute, nahiz eta oztopo asko agertu. Noizbehinka indarkeriak kaleak hartzen ditu, baina ez lehengo moduan. Ipar Irlandaren egoera normalizatuz joan da, baina bi komunitateek banaturik jarraitzen dute.

5. Bibliografia

Alonso, R. (2001): *Irlanda del Norte. Una historia de guerra y la búsqueda de la paz*. Madril, Editorial Complutense.

Alonso, R. (2003): *Matar por Irlanda. El IRA y la lucha armada*. Madril, Alianza ensayo.

Chandler, D. (1995): *Ejercitos y Batallas. Fuerzas de seguridad en Irlanda del Norte*. Madril, Ediciones el Prado-Osprey Military.

Murua-Uria, I. - Unzueta, H. (1996): *Suetena Belfasten*, Susa, Iruñea.

O'Beirne, J. (1994): *Historia de Irlanda*. Cambridge, Cambridge University Press, 1994.